

HERIOTZA HIL DA, BIZIA BIZIA DA



1. Garizumako jarduna
Pazkutan dogu buka,
“aleluia” oihuka,
bizi barriaren bila
sekulako burruka:
Grina gaiztoak bentzidu
eta birtutez truka,
behar dan dana uka;
Jesusen jarrai joanak
orain beretzat dauka.
2. Negu baltzaren ondoren
dator udabarria,
hau barri pozgarria!
Jesus Jaunak astindu dau
hilobiko harria.
Heriotzaren lekuan
polpol bizi-iturria,
ase hor egarria;
Bera da mana gozoa
Aitak gutzat jarria.
3. Gizonak kurutzan hila
Aitak dakar bizira,
hau da hau jirabira!
Guztiontzat argitu da
Pazkutako diztira.
Jesusen bila ez joan
lurpeko hilobira
bai bateo-harrira;
Beragaz biztu diranak
damutuko ez dira!
4. Heriotzea hil da ta
bizia da betiko,
bizirik da biziko!
Hilgarri dan guztiari
emon adar, ostiko.
Izan nai dogu bizitzan
Jesusen irudiko,
bide zuzen garbiko;
zihur gagoz holakoa
ez da behinere hilko!

A. Martzel

